

Jose Antonio Loidi idazlea 1916. urtean sortu zen Errenterian. Hainbat alorretan egin zituen ikasketak, Farmazian, Optikan eta Akustikan. Farmazialari aritu ez ezik, urte luzez osasun alorreko elkarteetan jardun zuen lanean.

Hainbat aldizkaritan idatzi eta kolaboratu zuen: *Egan*, *Zeruko Argia*, *Jakin*, *Olerti*, *Habe*, *La Voz de España*, *La Voz de Euskadi*, *Antzerti*, *Uranzu*, *El Bidasoa*, *Bidasoan*, *Acofar*, *Pliegos de Rebotica*, *Cuart creixent*, *La nova colleccio de lletres*, *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria*, *Aia*, *Oarso*, *Cuadernos de Hidrología*. Literatur lanak zein artikulatuak argitaratu zituen aldizkari horietan. Literaturaren esparruan batik bat euskal nobelagintzan eginiko ekarpenari esker da ezagun: 1955. urtean *Hamabost egun Urgainen* nobela argitaratu zuen, euskarazko lehen polizi-nobela, arrakasta handia izan zuena.

Bestalde, 70eko hamarkadan, literaturan eta osasun alorrean euskarazko jarduna sustatzearekin batera, beste hainbat esparrutara ere hedatu zuen euskaltzaletasuna; besteak beste, Irungo ikastolaren sorreran kolaboratu zuen; eta Loidik berak antolatu zuen Irunen Gerra Zibilaren ostean eginiko lehen euskal jaia, 1966. urtean. Euskaltzaindiak antolatutako literatura-lehiaketa askotan epaimahaikide ere izan zen. Halaber, Luis de Uranzu Kultur Taldeko bazkide sortzaile eta presidente eta Irungo ondare historiko zein kulturalaren ikertzaile nekaezina izan zen.

Mendeurrenaren harira antolaturiko jardunaldi hauetan J. A. Loidik literaturan eginiko ekarpena ekarri nahi dugu gogora. Euskaltzaletasunaren eta euskal kulturaren alde egindako lanaren ondorioz, 1957. urtean euskaltzain urgazle eta 1998an ohorezko euskaltzain izendatu zuten.

JOSE ANTONIO LOIDIREN JAIOTZAREN MENDEURRENA (1916 - 2016)



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



EGITARAUA

SARRERA HITZAK:

19:00

ANDRES URRUTIA euskaltzainburua

JOSE ANTONIO SANTANO, Irungo alkatea

HIZLARIAK:

19:10

IÑAKI GARRIDO YEROBI

Historiagilea eta Luis de Urantz Kultur Taldeko kidea

«José Antonio Loidi Bizcarrondo eta Irunen utzi digun ondarea: LUKT»

19:30

M.A. ELUSTONDO

Kultura kazetaria eta polizia nobelatan aditua

«Bederatzi kopla, hamahiru, `Hamabost egun Urgainen´ (Jose Antonio Loidiren lehen polizi nobela beltzaren ekarriaren gainean)»

19:50

JAVI CILLERO GOIRIASTUENA

Idazlea eta itzultzailea

«Martin Garaidiren fitxa: euskal detektibeen aitonaren atzetik»

AGUR HITZAK:

20:10

ANA TOLEDO

Literatura Ikerketa batzordeko burua

LEKUA

CBA KULTUR ZENTROA

San Juan plaza

IRUN

Data

2016ko ekainaren 17an, 19:00etan

Informazioa

www.euskaltzaindia.eus

Izen ematea

Egoitza: info@euskaltzaindia.eus

Tel. 94 415 81 55

Donostia: donostiaordez@euskaltzaindia.eus

Tel. 943 42 80 50